

[susa](#) | [literaturaren zubitegia](#) | [literatur emailuak](#) | [armiarma](#) | [klasikoak](#) | [aldizkarien gordailua](#) | [basquepoetry](#) | [euskarari ekarriak](#)



## [kritiken hemeroteca](#)

7.423 kritika

- [Honi buruz](#)
- [Bilaketa](#)
- [Hasiera](#)

## Azken kritikak

« [Leku eta une bat, hamaika kontu](#) | [Korapiloa deslotzen](#) »

Balou mendikateko balada / [Yan Lianke](#) (*Maialen Marin / Aiora Jaka*) / Elkar, 2018

Leienda batean bezala Javier Rojo / *El Diario Vasco*, 2018-07-07

Oso gutxitan heltzen zaizkigu euskarara ekialdeko hizkuntzetan idatzitako liburuen itzulpenak, eta hori gertatzen denean, idazleak edo liburuak inguruko erdaretan izan duen oihartzunaren isla izaten da. Egoera horren aurrean salbuespen moduan aurkezten delarik, oso pozgarria izan da Yan Lianke idazle txinatarraren “Balou mendikateko balada” esku artean izateko parada. Irakurleok orain arte aukera gutxi izan dugu idazle hau ezagutzeko; izan ere, Espainiako Kultura Ministerioak argitaratzen duen ISBN katalogoan kontsultatzen bada, lau obraren erreferentzia baino ez da agertzen, tartean hauxe.

Argumentuaren ardatzean kontatzen da nola emakume batek (You Sipo izenekoak) eginahal guztiak egiten dituen bere seme-alabei ezkontideak aurkitzeko. Lau seme-alabak atzeratuak dira, oso ondo zehazten ez den gaixotasun batek jota. Bi alaba nagusiak dagoeneko ezkontuta badaude ere, azken biei ezkontideak aurkitzea falta du oraindik, eta hori lortzeko edozein gauza egiteko prest dago emakumea. Oinarri honen gainean garatzen da istorioa. Argumentuan errealismoa eta fantasia nahasten dira, biak ala biak maila berean egongo balira bezala, batak eta besteak elkar osatuko balute bezala. Mendebaldeko literaturarekin konparatuta, argumentuan azaltzen denak errealismo magikoa edota hegoaldeko gotikoa gogoratzen ditu askotan, eta William Goyen bezalako izenak etortzen dira burura. Besteetan, ipuin mirengarri edo leienda baten aurrean dagoela pentsa dezake irakurleak. Gertakarik denboratik kanpo geratu den garai batean kokatzen direla ematen du askotan, non bizirauteak bizitzarako lema bakarra dirudien. Baina noizean behin modernitateko osagaien baten presentziak (ibilgailuren bat, adibidez) garai bortitz, basati eta ia mitiko hori pentsatu den baino hurbilago dagoela erakusten du.

Itzulpena dela-eta (Maialen Marin-Lacartak eta Aiora Jakak egina), komentatu behar da irakurgarritasunaren eta exotismoaren arteko oreka mantentzen jakin duela, ekialdeko osagai berezi batzuk baztertu gabe (egutegiari buruzko informazioa, esaterako), mundu hori hemengo irakurleei hurbildu baitie.

## Azken kritikak

[\*\*Trikua esnatu da\*\*](#)  
[\*\*Lorea Agirre / Idurre Eskisabel\*\*](#)

*Irati Majuelo*

[\*\*Feminismoa % 99ren alde\*\*](#)

**Askoren artean**

*Amaia Alvarez Uria*

[\*\*Lurra eta dardara\*\*](#)

**Askoren artean**

*Igor Estankona*

[\*\*Miñan\*\*](#)

[\*\*Amets Arzallus Antia\*\*](#)

*Javier Rojo*

[\*\*Poesia kaiera\*\*](#)

[\*\*Louis Aragon\*\*](#)

*Joannes Jauregi*

[\*\*Arimaren etorkizuna. Estandar emozionalaren sorrera\*\*](#)

**Eva Illouz**

*Ibai Atutxa Ordeñana*

[\*\*Iturria\*\*](#)

[\*\*Unai Elorriaga\*\*](#)

*Estibalitz Ezkerra*

[\*\*Bazterreko ahotsak\*\*](#)

[\*\*Miren Tirapu Goikoetxea\*\*](#)

*Javier Rojo*

[\*\*Izendegi hutsa\*\*](#)

[\*\*Fito Rodriguez\*\*](#)

*Mikel Asurmendi*

[\*\*Naufragoen altzoa\*\*](#)

[\*\*Gorka Setien\*\*](#)

*Igor Estankona*

[\*\*Etxeak eta hilobiak\*\*](#)

[\*\*Bernardo Atxaga\*\*](#)

*Ibon Egaña*

[\*\*Amua\*\*](#)

[\*\*Aritz Gorrotxategi\*\*](#)

*Javier Rojo*

[\*\*Soinujolearen semea\*\*](#)

[\*\*Bernardo Atxaga\*\*](#)

*Txema Arinas*

[\*\*Basa\*\*](#)

[\*\*Miren Amuriza\*\*](#)

*Karmele Beobide Urigoitia*



# Artxiboa

[Abendua 2019](#)

[Azaroa 2019](#)

[Urria 2019](#)

[Iraila 2019](#)

[Abuztua 2019](#)

[Uztaila 2019](#)

[Ekaina 2019](#)

[Maiatza 2019](#)

[Apirila 2019](#)

[Martxoa 2019](#)

[Otsaila 2019](#)

[Urtarrila 2019](#)

Aurreko urteak ▼

## Hedabideak

- [Berria](#) (1010)
- [Argia](#) (954)
- [El Diario Vasco](#) (888)
- [El Correo](#) (794)
- [Gara](#) (634)
- [Egunkaria](#) (505)
- [Deia](#) (425)
- [Aizu!](#) (170)
- [El País](#) (151)
- [Irunero](#) (122)
- [Zeruko Argia](#) (97)
- [Egin](#) (77)
- [Hegats](#) (62)
  
- [Besterik](#) (1533)